




ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohiko Udalbatzarra

Deialdia: Lehena

Eguna: 2012-01-26


Ordua: 19:30 -20:30

Tokia: Udaletxeko areto nagusia


Bertaratuak:

- MIREN ARGIA ITUARTE ARKOTXA
- RAKEL ELU BENGOETXEA
- JOSEBA ZABALETA ARRIZABALAGA
- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- LEIRE BEITIA ANABITARTE
- IERA LARRINAGA GARALDE
- RICARDO MARIA BEITIA ITURRIZA
- .-OIER ESPILLA BENGOCHEA
- MIREN ARANZAZU BURGOA AGUIRREGOMEZCORTA





ONDARROAKO UDALA



-IBON ARANBARRI ETXABURU

-RICARDO GATZAGAETXEBERRIA BASTIDA

-AITOR MARURI TXURRUKA


Ez bertaratuak:

- FATIMA ANSOTEGI ELORDI.

Idazkaria: Garaine Ajuria Lasuen



ONDARROAKO UDALA



Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma badagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Aurreko aktak irakurri, eta hala badagokio, onartzea.(2011/12/22 eta 2011/12/30).

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek akten testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, aktak bozkatu eta aho batez onetsi du.

2.- Dekretuen Kontu emana.


Alkate andreak abenduaren 19tik 2012ko 50 zenbakidun arteko dekretuen berri eman ondoren, zinegotziei eman die dekretuen inguruko galdera edo eskaeraren bat egiteko.

Ez da galderarik egon, eta Udalbatzak aipatutako epean sinatutako dekretuen berri izan duenez, hurrengo puntuarekin jarraitu du.


3.- 2012ko Aurrekontuaren hasierako onespenerari EAJ-PNV taldeak jarritako erreklamazioa onartzea edo ez onartzea, hala badagokio, 2012ko aurrekontua behin betiko onartzea.

2011ko azaroaren 24an hasierako onarpena eman zitzaion Ondarroako Udaleko 2012ko urtealdiko aurrekontu orokorrari eta 2011ko abenduaren 7an, berriz, BAO n argitaratu zen, bere 232 zenbakian.

Ikusita, 2011ko abenduaren 26ko data eta 6570 sarrera erregistroko zenbakia duela, Ibon Aranbarri Etxaburu jaunak erreklamazio bat egin zuela, bere izenean eta EAJ-PNV udal taldearen izenean, Udalbatza Osoak 2011ko azaroaren 24an hartutako erabakiaren aurka, arauak hausteagatik eta, hain zuzen ere, lurzoruaren legea eta aurrekontuari buruzko legezkotasuna era honetan hausteagatik.



ONDARROAKO UDALA



Ikusita, 2012ko urtarrilaren 20an udal teknikariak (Idazkaria, Kontu-hartzailea eta Hirigintza zerbitziburua)egindako txostena.

Ikusita 2012ko urtarrilaren 24an egindako Ogasun Batzordearen akordio honen aldeko diktamena,



Udalbatza kideei proposatzen zaizkio honako akordioak banan-banan:

Lehenengoa: 2012ko Aurrekontuaren hasierako onespenerari EAJ-PNV taldeak jarritako erreklamazioa ez onartzea.

Bigarrena.- 2011ko azaroaren 24an, 2012ko ekitaldirako, onartu zen udal aurrekontu orokorra eta exekutatzeko oinarriak berrestea, kapituluz kapitulu, ondorengo laburpena agertzen duena;

GASTUAK	Udal Aurrekontua	Ondarroa Lantzen,S.A.	Aurrekontu Bateratua
Pertsonal-gastuak	3.814.200		3.814.200
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa.	3.782.330	67.200	3.849.530
Finantza-gastuak	44.000		44.000
Transferentzia arruntak	1.167.265		1.167.265
Inbertsio errealak	1.259.060		1.259.060
Kapital transferentziak			
Finantza aktiboak	20.0000	103.445	123.445
Finantza pasiboak	0		0
GUZTIRA	10.086.855	170.645	10.257.500

SARRERAK	Udal Aurrekontua	Ondarroa Lantzen,S.A.	Aurrekontu Bateratua
-----------------	-----------------------------	----------------------------------	---------------------------------



ONDARROAKO UDALA

Zuzeneko zergak	1.342.650		1.342.650
Zeharkako zergak	90.600		90.600
Tasak eta bestelako sarrerak	2.099.930		2.099.930
Transferentzia arruntak	4.621.900		4.621.900
Ondare sarrerak	1.727.000		1.727.000
Inbertsio errealen		170.645	
bestereganaketa			170.645
Kapital transferentziak	198.775		198.775
Fiantza aktiboak	6.000		6.000
Finantza pasiboak			
GUZTIRA	10.086.855	170.645	10.257.500

Hirugarrena: 2012ko Aurrekontu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 15. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Udalbatza-kideek **gehiengo osoz** onartu dute, eta botazioa honako hau izan da:

-Aldekoa: 9 Bilduko Udal Taldea.

- Kontra: 3 EAJ Udal Taldea


4.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Bizkaiko hondartzen eta euren eraginpeko eremuen kudeaketari eta kalitateari buruzko esparru akordioa onarpena.

Oier Espilla jaunak hitza hartzen du hitzarmen honen nondik norakoak azaltzeko.

Hondartzak segurtasun, higiene eta erosotasun baldintza egokietan erabiliak izatea



ONDARROAKO UDALA




bideratzeko era askotako makina bat jarduketa garatu dira. Jarduketa horiek, aldi berean, aukera eman dute inguru natural horiek batesteko eta zaintzeko.

Beste alde batetik, azpimarratu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak, hain zuzen ere bere Ingurumen Sailaren bidez, berariaz zaintzen dituela esparru horiek 1.981etik, eta hori horrela da aintzat hartu duelako atal askotan namarmen udalez gaindiko izaera duen zerbitzua dela eta berari dagokiolako bermatzea Bizkaian udal eskumenekoak diren zerbitzuak era integral eta egokian ematen direla, eta baita zerbitzu horien guztien koordinazioa eta horietarako laguntzak eta lankidetzak ematea ere (toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 31 eta 36. artikulak).


Horrela, arestian adierazi den urte horretatik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu zituen hainbat ardura; hala nola, hondartzak urte osoan garbitzea, zaintza-zerbitzua ezartzea, dutxak, iturriak eta oinak garbitzeko tokiak ipintzea, megafonia-instalazioak, herri-zerbitzuak, e.a. ipini eta zaintzea, sartzeko, ibilgailuak aparkatzeko, edateko urerako eta inguruko urbanizazioetarako azpiegiturak egitea, e.a.

Euren udal-mugar-tean hondartzaren bat duten udalek ere ahaleginak egin dituzte eta aurrekontua bideratu dute ingurune horiek hobetzera. Horrela, aparkatzeko eta sartzeko azpiegiturak egin eta berritu dituzte, zaintza-zerbitzuak ipintzen esku hartu dute, herri-zerbitzuei arreta egin diete, kontsumitzen den edateko ura hornitu, e.a., hain zuzen ere arloan aplikagarria den legeria orokorrean eta arlokakoan ezarri dena betez (batez ere toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Koste buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea).

Hainbeste lagunen presioa eta eragina dituzten inguruneetan, zerbitzu egokia eskaini behar da, jarduera ezberdinak egin behar dira, administrazio askotako erakundeak sartu behar dira tartean, aurrekontu-sail garrantzitsuak bideratu behar dira urtero, eta, horretarako guztirako, ederto antolatu beharra dago. Helburu horretarako nahitaezkoa da parte hartzen duten agente guztien ahaleginak koordinatzea, arazoak konpontzeko eta sortzen diren beharrak betetzeko.



ONDARROAKO UDALA



Koordinazioaren azken helburua hauxe baino ez da: Ondarroako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean, giza eta ekonomia-baliabideak hobetzea, herritarrei zerbitzu hobea egiteko eta erabiltzaileen natura-habitata egokiago zaintzeko.

Udalbatza Osoak hau **aho batez** onartzen du:

Lehena: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Bizkaiko hondartzen eta euren eraginpeko eremuen kudeaketari eta kalitateari buruzko esparru akordioa onarpena.

Bigarrena: Alkateari hitzarmen hau sinatzeko eskumenak ematea.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailari eta Udal kontu-hartzaileari akordio honen berri ematea.

5.- Eusko Jaurlaritzaren eta Ondarroako Udalaren artean turismo informazio zerbitzu integrala finkatzeko lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.


Argia Ituarte andreak hitza hartzen du hitzarmen honen helburua eta gai honetan Ondarroako Udalak 2012ko urtean aurreikusita duen gastu azaltzeko.

Udalbatza Osoak hau **aho batez** onartzen du:


Lehena: Eusko Jaurlaritzaren eta Ondarroako Udalaren artean turismo informazio zerbitzu integrala finkatzeko lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.

Bigarrena: Alkateari hitzarmen aldarazpen hau sinatzeko eskumenak ematea.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzari eta Udal kontu-hartzaileari akordio honen berri ematea.



ONDARROAKO UDALA



6.- Udal Kontu hartzaileak jarritako ingeren berri ematea.

Idazkari andreak hitza hartzen du, Kontu hartzaileak egindako honako ingeraren berri emateko 2011ko abuztuaren 8ko alkatetza dekretua ebatsi eta gero;

“Pasa den 2010ean kultura, kirola eta gazteria arloetako ekintzak egiteko diru-laguntza deialdia egin zen. Onuradun gerta zen Iosune Ituarte Iriondo “Txomin Agirre tanborrada” antolatzeke, 3.862,92 euroko laguntzagatik.

Persona honek aurkeztu duen justifikazioak ikusita, Kultura zein Kirol saileko administrariak egin duen txostenaren arabera justifikazioa epez kanpo aurkeztu da. Halan da ere, laguntzaren justifikazio tramitea jarraitu eta ontzat eman da

Hau ikusita, eta kontuan izanik Ondarroako Udalaren Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra”ren 19.artikuluaren xedatutakoa, bidezkoa da jasotako zenbatekoa itzultzea eta berandutza-interesak eskatzea justifikatzeko betebeharrarekin konplitzeko ezarritako epeak betetzen ez direnean.

Udalak onartuta duen dirulaguntzen prozedura, jakinarazten dizut, txosten teknikoaren kontra ezin duzuna erabakirik hartu. Hori dela eta persona horrek bueltatu behar du jasotako kopurua, baita dagokion interesak.


Honez gain, hurrengo hau ere azaldu behar dizut: Txosten honen aurkako proposamenik ezin duzu egin. Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etenen da harik eta hura ebazten den arte, beti ere ingera espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean. (U.E.A.F.A.ren 70. art.)

Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, Udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, bere ebazpena beteraziko delarik. Ebazpen hori ingeraren kontrakoa bada, Udalbatzari helerazi beharko du Udalburuak (7/85 Legearen art. 22.2.a)

ONDARROA, 2011-08-11
KONTUHARTZAILEA,”



ONDARROAKO UDALA



7.- Organo kolegiatuetarako Udalbatzaren ordezkariak izendatzea.

Raquel Elu andreak hitza hartzen du Lea Artibai Mankomunitatearen ordezkarien ordezkoen izendapena azaltzeko, batez ere bertako batzar informatzaileak joateko ordezkariak izendatzea izango zen.

Udalbatza Osoari proposatzen zaizkio honako akordioak banan-banan:


Lehena: Lea-Artibai Mankomunitatean korporazioaren ordezkari diren honako ordezkoak izendatzea:

- Raquel Elu Bengoetxea andrearen ordezkaria, Txomin Etxaburu Solabarrieta jauna
- Joseba Zabaleta Aguirrezabalaga jaunaren ordezkaria, Ricardo Maria Beitia Iturriza jauna.
- Aitor Maruri Txurruka jaunaren ordezkaria, Ibon Aranbarri Etxaburu jauna


Bigarrena: Udalbiltza Patzuergoaren ordezkaria Argia Ituarte Arkotxa andrea izendatzea eta honen ordezko lera Larrinaga Garalde izendatzea.

Hirugarrena: Erabaki honen berri izendatuei eta organo kolegiatuei ematea.

Udalbatzak **aho batez** onartu du.



ONDARROAKO UDALA



8.- Bilduko Udal Taldeak aurkeztutako Mozioa: Garoña Zentral Nuklearra ixtea.

Joseba Zabaleta jaunak Bilduko Udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen du;

“Bilduk aurkezten du Udalbatza osoari mozioa: Garoña Ixtea.

2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Espainiar Estatuko zentralik zaharrena da. 1971. Urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinatua, epe hori iazko martxoan gainditu zuelarik.

Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren froga dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio.

Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko lituzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak.

Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera.

Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Espainiarreko Gobernuari zentralaren itxiera behin eta berriz eskatuz.

Frogatuta dago Garoñaren ustiapen baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute.

Hala ere, azken urteotan Espainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarritz. Halako erabaki bat Espainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoekiko interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu.

Ekonomia ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu.


Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- Ondarroako Udalak dei egiten diote Espainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala itxi dezan.
- Ondarroako Udalak Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra geldiaraztea xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du.
- Ondarroako Udalak zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruko lanketa dibulgatzailea indartu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ondarroako Udalak kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten du energia sistema publiko batetik abiatuz.
- Honako akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Raxoiri, Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriarri eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.

Ondarroan, 2012ko urtarrilaren 12an
Bildu Udal Taldea”



ONDARROAKO UDALA



Ibon Aranbarrik, EAJk udal taldeak aurkeztu duen mozioren gehikuntza irakurtzen du:

“MOZIOARI GEHITZEKO ZUZENKETA PROPOSAMENA

Garoiako Zentral Nulearraren ixteari buruz aurkeztutako mozioari , honako hauek gehitzea proposatzen dugu:


- 1. Ondarruko Udalak Nuklear Segurtasun Kontseiluari , zera eskatzen dio :Ezetzko txostena egin dezala, Garoiako central nuklearra ustiatzeko baimenari buruz.*
- 2. Ondarruko Udalak Espainiako Gobernuari zera eskatzen dio : Zentrala ixtearekin batera aurrera eraman beharreko plan sozial eta ekonomikoak presta ditzala.*
- 3. Ondarruko Udalak Espainiako Gobernuari bere konpromisoa bete dezala eskatzen dio, alegia energia nuklearra seguruago, garbiago eta merkeagoak diren beste energia batzuek ordez dezala.*

Ondarroa, 2012ko urtarrilaren 26a


ONDARROAKO EAJren UDAL TALDEAREN IZENEAN

Ibon Aranbarri Etxaburu”

Alkatea andreak hitza hartu du adierazteko behin eta berriro, azaldu duela ez dela egokia Udal Gobernuan dinamika hau erabiltzea. Udal gobernuak prest dagoela edozein proposamen entzun eta onartzeko baina ez dela bidezkoa plenoa baino ordu erdi lehenago proposamenak egitea; era honetan egindako proposamenak ezin dituelako udal gobernuak alde aurretik landu. Horregatik ez dute egoki ikusten honen alde bozkatzea, ez ados ez daudelako baizik eta behin baino gehiago esan zaielako proposamenak alde aurretik aurkezteko udal gobernuak lantzeko aukera



ONDARROAKO UDALA



izan dezan. Beraz, Bilduko taldea alde ez botatzera bultzatu dutela adierazi du. Errepikatu du ez dutela nahi denbora falta adostasunik ez topatzearen arrazoia izatea.

Bilduko Udal Taldeak aurkeztutako Mozioa **aho batez** onartzen da.

Jarraian, EAJ Udal Taldeak aurkeztutako mozio gehikuntzaren **gehiengo soilez** onartu dute, eta botazioa honako hau izan da:

-Abstentzio: 9 Bilduko Udal Taldea.

- Alde: 3 EAJ Udal Taldea

9.- Eskaerak eta galderak.

Aitor Maruri jaunak hitza hartu du galdetzeko zergatik ez den Hirigintza Batzordeko deialdirik egiten.

Iera Larrinaga andreak hitza hartu du azaltzeko, Hirigintza Batzordeko deialdirik ez dela egin ez datozelako bat egiten legeak Hirigintza aholku batzordetzat jasotzen duena eta Bilduko Udal Taldeak Hirigintza aholku batzordetzat ulertzen duena. Eta Hirigintza aholku batzordearen eraketa aztertzen ari direla adierazi du. Bestetik adierazi nahi izan du nahiz eta Hirigintza batzorderik ez egin herri batzarretan hirigintza arazo asko atera direla mahai gainera. Azkenik dio, Hirigintza arloan arazo korapilatsuak daudenez denbora asko ematen dutela arazo horiek aztertzen. Dena dela, ondorioztatu du ahalik eta arinen egingo dutela Hirigintza Batzordearen deialdia.

Udalbatza kideek eskaera eta galdera ez dutenez, osoko bilkura amaitutzat eman dut alkatearen oniritziarekin, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

